

Liburu-funtsak berritzeko laguntza jasoko dute eskualdeko zazpi udal liburutegik

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak 832.000 euroko diru laguntza banatu du EAEko liburutegien artean.

Danel Lauzirika

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegietako liburu-funtsak berritzeko edota handitzeko diru laguntzak esleitu ditu berriki. Guztira, 832.000 euro banatu dituzte udalen eta udal liburutegi publikoen arloan eskumenak dituzten erakundeen artean. Busturialdeari dagokionez, Bermeoko, Foruko, Busturiko, Gernika-Lumoko, Morgako, Mundakako eta Muxikako udalek jaso dute liburu-funtsak berritzeko laguntza. Gernika-Lumoko eta Bermeoko udalek jaso dute diru laguntza handiena. Udalerrri horietako kultura arloko arduradunek aurtan liburu-funtsak berritzeko 8.443 euroko aurrekontua izango dute.

Lau udalek kopuru bera

Liburu-funtsak berritzeko diru laguntzak esleitzerako orduan udalerri bakoitzeko biztanle kopuruaren irizpidea aintzat hartzen dute Eusko Jaurlaritzako arduradunek. Horrela, Mundakaren, Muxikaren, Busturiaren eta Foruaren kasuan, udal bakoitzak 1.125 euroko diru laguntza jasoko du. Morgako Udalak, aldiz, 300 euro jasoko ditu Andra Mari auzoan dagoen udal liburutegiaren funtsa handitzeko.

Liburuentzako laguntzak

Beste alde batetik, Jaurlaritzaren Kultura sailak iaz euskaraz kaleratutako liburuak sustatzeko diru laguntzak banatu ditu. Edorta Jimenezen ' Ispiluaren kalteak ' sustatzeko 2.500 euroko laguntza esleitu dute. Asel Luzarragaren ' Abaraska ' eleberriak 2.250 euro jaso ditu .
datua